

Funtsezko bazkideak

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko, funtsezko bazkide batzuk izango ditugu, beste atalekin batera.

Hasteko, hornitzaile batzuekin kontaktuko dugu. Gure hornitzaile nagusia Eroski izango da, non beharrezko material guztia erosiko dugu, Euskadiko ekonomia sustatuz aldi berean, bertokoa baita. Honekin batera ere, seguruak bat doaz.

Garraio enpresei dagokienez, gure ekintzak egiten ditugun leku bakoitzeko udalak bidaltzen dituen garraio enpresekin lan egingo dugu, zabor bilketa ondoren, zabor hori gordeta mantendu ahal den leku batera eramateko.

Finantzaketetarako, gure enpresarekin ekintzak egingo duten enpresen finantzaketa bereganatuko dugu.

Aurreko guztiarekin ere, patrozinadore batzuk izango ditugu. Enpresa desberdinak guk patrozinatzea espero dugu (adibidez Mondragon kooperatiba, Iberdrola, Kutxabank,...), haien interesekoa delako itxura ona mantentzea eta ingurumenarekin kooperatiboak izatea.

Honekin batera, bazkide moduan izango ditugu lekuko artistak eta bolondresak, bolondresak ekintzak egingo dutenak izango direlako eta bertoko artistak, zabor bilketa eta gero izango direlako zaborrarekin artelanak egingo dutenak.

Azkenik, merchandising bezala, lekuko artistek zaborrarekin egingo duten artelanak enpresei salduko dizkiegu.